

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO 83 ikaslek eta langilek ikusi zuten atzoko Baskoniako partidua

2015/11/06

Baskoniarekin dugun harremanari esker hasi gara Euroligako partiduetako sarrera merkeak eskaintzen eta unibertsitateko 83 ikasle eta langile animatu ziren atzoko partidua ikusten joatera.

Partidu izugarria izan zen, azkenengo momenturarte berdinduta egonda azkenean irabazi zutena.

Horrez gain, talde handia joan ginenez, partidu bukaeran kantzara jeitsi eta argakia ateratzeko aukera izan genuen eta Baskoniako kamiseta bat ere oparitu ziguten, partidua ikustera joan zirenen artean zozketatu duguna, hemen zozketaren bideoa ikusi dezakezue.

Bukatzeko, esan Baskoniako Armani partidurako prezio ezin hobeak lortu ditugula, sarreak 3-8€ artean eskuragarri dituzelarik. Hemen informazioa.

